

EGO-AMERIKA

Atlantik-Itxasorantza zabal eta Itxaso Bare'rantza estu, Andes mendiak egiten dabe zati bi Ego-Amerika.

Andes mendiak dira munduko mendi-katerik luzeena, 7 500 k. luze eta erpiñik gorena Akonkagua, 6 959 m.'koa dabela.

Iparaldean Amazonas ibai luzea ta zabala dago, munduko ibairik urtsuena eta Brasil'en itxasoratzen dana, Atlantik itxasora sartzeko.

Giro epela dagoan lekuetan, Txile'ko alde batzutan, esaterako, laranjak eta maastiak dagoz ugari eta Arjentina'n gari-solo aundiak.

Arjentina'ko uriburua dan Buenos Aires da kultura-arloan eza-gunena. Zazpi milloi biztanle ditu uri onek eta munduko amar uririk aundiaren artean dago.

Abere-arloan aberatsena Arjentina da, batez beikiak eta ardikiak. Ardien kokalekua munduaren egoaldeetan da, Amerika'n, naiz Afrika'n naiz Ozeania'n.. Lur-garriaren iparraldean gitxiago dira.

Arjentina'n, gaiñera, liñoa, aleak, igaleak eta kotoia dira lur-azaleko aberastasuna eta lurpean, barriz, ugari dagoz arrorioa, ikatza, beruna, kobrea edo burdin-oria, eta beste gai asko.

Aberatsa da ba, Arjentina eta erritarrik geienak txiro edo gosez bizi dira. Ori zergaitik dan? Alde batetik lengaiak edo "materias primas" iparraldera merkeegi saltzen diralako, baiña, batez be, diru-zaintza lotsagarria dalako. Ustelkeria ugari!


Txile luzea da, iparraldetik egoalderaiño, eta orregaitik giro guztiak dauz. Alde batetik Itxaso Barea eta bestetik Andes mendiak edur zuria beti agirian dabela.

Zabalerea ez da 50 km. baiño

Munduan nitratorik geien saltzen dauan laterria da Txile. Maatsez eta lur-gaiñeko igalez be aberatsa.

Pinotxet Ugarte agintari ankerrak kalte aundiak egin arren, ekonomi-arloan ondo jokatu eban. Txile da laterri-artearen zorrik ez daukan Egoamerika'ko laterri bakarra.

Antxiña Inka aurreratuak bizi ziran Peru-aldean.



Ongi-etorria egin Kortez'i Mexikon.

Ondoan dago Kolonbia jakintsua eta alboan Benezuela arrorio-arloan munduko irugarrena.

Simon Bolibar euskal jatorrikoak askatu zituan lurralde oneik.

Lurralde guztietan indar aundia dauke Euskal-Etxeak, batez be Arjentina ta Benezuela'koak.

Labur- labur, aberastasunak edo irabazbideak: Benezuela'n arrorioa, nonnai lurpeko meatzak, tabako-orria ugari solo zabaletan, abere-talde ikaragarriak Uruguai eta Arjentina'n, emen gautxoak zaindari dirala. Gogoratu "Martin Fierro" edo "Matxin Burdin", Jaka Kortajarenak euskeratua.. Kautxua inditarrak landu eta urtua, Brasil'en kotoi-arlo ikaragarriak, bananak tokirik geienetan, akeita edo kafea ugari batez be Brasil'en. Brasil aundia da eta aberatsa, munduaren itxaropena... Maatsa ugari Txile'n, langintza, batez be aragi latakook, tea lortzen da iñon baiño geiago eta kakaua batzen dabe kontu aundiaz.

Meatzik aberatsenak Kolonbia'ko urre ta platinozuloak dira.

Edertasun-saillean Rio Janeiro'ko itxas-kolkoa da munduko tokirik zoragarrienetarikoa.

Ikusgarriak dira margoz beterik jazten diran dantzari inditarrak toki guztietan.

OLAZAR'tar Martin'ek